



ALKIZAKO UDALA
(GIPUZKOA)

UDALBATZARRAK 2013ko URTARRILAREN 29an EGINDAKO OHIKO BILKURAREN AKTA

2013ko urtarrilaren 29an, Alkizako Udaletxean, arratsaldeko 20.30etan, Jon Umerez Urrezola Alkatearen Lehendakaritzapean behean aipatzen diren zinegotziak bildurik, ondorengo erabakiak hartu ziren :

ALKATEA : Jon Umerez Urrezola

ZINEGOTZIAK : Jose M^a Aranzabe Urruzola
Jose Ramon Hernandez Cristobal
Uxue Etxebeste Eizagirre
Koldobika Jauregi Zinkunegi
Leire Otegi Elola.
Onintza Gorostidi Murua

IDAZKARIA: Ane Gomez Urteaga

Ondorengo gaiak aztertu eta erabaki ziren:

1. **Aurreko bilkuretako akten onespena.**
2012ko abenduaren 28an egindako ohiko bilkuraren akta.
2. **Alkatetza ebazpenen berri ematea.**
3. **Fakturak eta ordainketak.**
4. **Onintza Gorostidi Murua andreak bere zinegotzi kargua hartzeko aitortpena, hala bada.**
5. **Itxurain Elkarteak eginiko 2012 urteko diru-laguntza eskaeraren azterketa, hala bada.**
6. **IX. Aiztondo Klasikoa "Patxi Alkorta Memoriala"-ren kitapenaren berri ematea, hala badagokio**
7. **2012 urtean zehar irabazi xederik gabeko erakundeek aurkeztu dituzten diru-laguntza eskaeraren azterketa, hala bada**
8. **Alkizako Garmendi Azpi baserriko etxebizitzaren lehen erabilerako baimena eskaera, K.J.Z.**
9. **2013 ekitaldirako udal aurrekonturen espedientearen hasierako**



ALKIZAKO UDALA
(GIPUZKOA)

- onespena, hala bada**
10. Beste batzuk.
11. Erregu, galdera eta mozioak.

.../...

LEHENENGO PUNTUA
AURREKO BILKURETAKO AKTEN ONESPENA

- 2012ko abenduaren 28ko ohiko bilkuraren akta. Irakurri ondoren bertaratuek aho batez onestu dute.

Akta Udaletxeko Iragarki Taulan eta Web orrialdean argitaratzea erabaki da.

BIGARREN PUNTUA
ALKATETZA EBAZPENEN BERRI EMATEA

Ondoren aipatzen diren Alkatetza Ebazpenak eman direla adierazi du Udaleko Behin Behineko Idazkari-Kontuhartzaileak, bertaratuak jakinaren gainean geratu direlarik:

34/2012 Alkatetza Ebazpena, abenduaren 26koa, 1/2012 Kreditu Aldaketari hasiera ematea, ebazten duena.

01/2013 Alkatetza Ebazpena, urtarrilaren 2koa, 2013ko ekaineko aparteko ordainsariari dagozkion nominaren aurrerakinak ahalbideratzea Udal langileei, ebazten duena.

02/2013 Alkatetza Ebazpena, urtarrilaren 15ekoa, Donostiako 1. Zenbakidun Kontentzioso-administratibo auzitegira aurkezteko onespena, ebazten duena.

HIRUGARREN PUNTUA
FAKTURAK ETA ORDAINKETAK

Ondorengo faktura zerrenda aurkeztu zen:

- REPSOL	935,09€
- REPSOL	413,93€
- REPSOL	259,40€
- REPSOL	8,28€
- GAS NATURAL FENOSA	466,63€
- GAS NATURAL FENOSA	117,26€



ALKIZAKO UDALA
(GIPUZKOA)

- GAS NATURAL FENOSA	129,63€
- BULEGOAK	2.783,31€
- EBA ERKIZIA	1.023,59€
-ORONA	841,25€
-IZADI	148,83€
-HONTZA	154,00€
-LINEA 3000	133,10€
-DESING	2.688,45€
-GAS NATURAL FENOSA	495,15€
-GAS NATURAL FENOSA	116,80€
-BYM COMUNICACION APOYO	308,55€
-ARGITU ASESORES	136,91€

Gaia azterturik bertaratuek aho batez ondorengo,

ERABAKITZEN DUTE

LEHENA.- Guztira **11.160,16** eurotako kopurua duen faktura zerrendari onespena ematea.

LAUGARREN PUNTUA

ONINTZA GOROSTIDI MURUA ANDREAK BERE ZINEGOTZI KARGUA HARTZEKO AITORPENA, HALA BADA

Behin Behineko Idazkari Kontuhartzaile andreak adierazi du Onintza Gorostidi Murua andreak Alkizako Udaleko zinegotzi kargua hartzeko betebeharrak guztiak burutu direla eta Junta Elektoral Zentralak bidali duen kredentziala zuzena dela.

Alkate jaunak gonbidatu du bateraezintasun kausarik balu ekintza honetan aldarrikatzera, Onintza Gorostidi Murua andreak ez dituela adierazi duelarik.

Apirilaren 5eko 707/1989 Errege Dekretuan xedatutakoa betetzea beharrezkoa denez (Hauteskunde Erregimenaren Lege Organikoaren 108.8 artikuluekin erlazionaturik), Onintza Gorostidi Murua andreak zin egin du bere karguari dagozkion obligazioak zintzo beteko dituela, Erregeari leialtasuna gordez eta Konstituzioa, Estatuko arau nagusi gisa bete eta betearaziko duela, kasu guztietan.



ALKIZAKO UDALA
(GIPUZKOA)

BOSTGARREN PUNTUA
ITXURAIN ELKARTEAK EGINIKO 2012 URTEKO DIRU-LAGUNTZA
ESKAERAREN AZTERKETA, HALA BADA

Ikusirik Itxurain Elkarteak aurkezturiko idatzia, non euren proiektuak aurrera eramateko Alkizako Udala 960 eurotako diru-laguntza eskaera egiten dion.

Gaia azterturik, Udalbatzak, Jose M^a Aranzabe zinegotziaren abstentzioarekin, gehiengoz, ondorengo,

ERABAKITZEN DU:

LEHENA.- Itxurain Elkarteari 960 eurotako dirulaguntza ematea euren proiektuak aurrera eramaten laguntzeko eta aipaturiko gastua onartzea.

BIGARRENA.- 2012 urteko udaleko aurrekontuan partida nahikoa aurreikusten da.

HIRUGARRENA.- Akordio honen berri interesdunari ematea.

SEIGARREN PUNTUA
IX. AIZTONDO KLASIKOA "PATXI ALKORTA MEMORIALA"-ren
KITAPENAREN BERRI EMATEA, HALA BADAGOKIO

Ikusirik IX. Aiztondo Klasikoa "Patxi Alkorta Memoriala" -ren kitapena prestatu dutela. Alkizako Udalak, egindako ekarpena 1.901,06 euro izan zen eta kitapena 2.035,77 euro izan dira, beraz, 134,71 eurotako defizita egon da.

Gaia azterturik, Udalbatza honek, aho batez ondorengo

ERABAKITZEN DU

BAKARRA.- IX. Aiztondo klasikoa "Patxi Alkorta Memoriala"-ren kitapena onestea.

ZAZPIGARREN PUNTUA
2012 URTEAN ZEHAR IRABAZI XEDERIK GABEKO ERAKUNDEEK
AURKEZTU DITUZTEN DIRU-LAGUNTZA ESKAERAREN AZTERKETA,
HALA BADA



ALKIZAKO UDALA
(GIPUZKOA)

Ikusirik 2012 urtean zehar irabazi xederik gabeko erakundeek Alkizako Udaletxean aurkeztu dituzten diru-laguntza eskaerak.

Ikusirik Behin Behineko Idazkari Kontuhartzaileak adierazi duela diru-laguntzak esleitzeko azaroaren 17ko 38/2003 Legeak xedaturikoa hartu beharko litzaketela kontutan.

Ikusirik 2012 urterako Alkizako Udalaren aurrekontuan partida nahikoa aurreikusi dela.

Gaia aztertutik Udalbatza honek aho batez ondorengo,

ERABAKITZEN DU:

LEHENA.- Irabazi asmorik gabeko ondorengo erakundeei diru-laguntza esleitzea:

- Nafarroa Oinez 2012.	50,00 euro.
- Herri Urrats 2012	50,00 euro.
- KORRIKA 2012	50,00 euro.

GUZTIRA 150,00 euro

BIGARRENA.- Interesdunei akordio honen berri ematea.

ZORTZIGARREN PUNTUA

ALKIZAKO GARMENDI AZPI BASERRIKO LURSAILETAN EGINDAKO ETXEBIZITZAREN LEHEN ERABILERAKO BAIMENA ESKAERA, K.J.Z.

Ikusirik K.J.Z. jaunak Alkizako Garmendi Azpi baserriko lursailetan egindako etxebizitzaren lehen erabilera baimena emateko eskaera aurkeztu duela.

Ikusirik Udal Aholkulari Teknikoak, 2013ko urtarrilaren 3an , egindako txostenean dioena:

“ALKIZAKO GARMENDI AZPI BASERRIKO LURSAILETAN EGINDAKO ETXEBIZITZAREN LEHEN ERABILERAKO BAIMEN ESKAERARI TXOSTEN TEKNIKOA



ALKIZAKO UDALA
(GIPUZKOA)

K. J. Z. jaunak bere etxebizitzaren lehen erabilerako baimena eskaera ikusirik, eta 2013-ko urtarrilaren 2-an ikuskaritza bisita teknikoa egin ondoren, egindako obra, lizentzia eskatzerakoan aurkeztu zen “Familia bakarreko etxe eta artisautza tailerraren oinarrizko eta eraikitzeko proiektuari” egokitzen zaiola adierazten dut, eta baimena lortzeko beharrezkoak diren dokumentuak aurkeztu direnez, egokia izango da aipatutako baimena ematea.”

Gaia azterturik, bertaratuak, Koldobika Jauregi zinegotziaren abstentzioarekin 30/1992 Legeak 28. artikulua xedatutako kasu batean aurkitzen delako, ondorengo

ERABAKITZEN DUTE

LEHENGOA.- Alkizako Garmendi Azpi baserriko lursailetan eraiki den etxebizitzari, lehen erabilera baimena ematea.

BIGARRENGOA.-Erabaki honen berri K.J.Z. jaunari ematea.

BEDERATZIGARREN PUNTUA **2013 EKITALDIRAKO UDAL AURREKONTUREN ESPEDIENTEAREN** **HASIERAKO ONESPENA, HALA BADA**

Ikusirik 2013 urterako Udal Aurrekontuaren proiektua non 2013 urterako ekitaldi ekonomikoan Udalak izango dituen diru sarreraren eta gastuen partidak jasotzen diren.

Ikusirik aurrekontuaren dokumentuari eranstean zaion dokumentazioa, hau da memoria, pertsonalaren eranskina, aurrekontua betearazteko araua eta bestelakoak.

Ikusirik 2013ko urtarrilaren 22an Udaleko Behin behineko Idazkari Kontuhartzaileak eginiko txostenean dioena.

Gaia azterturik Udalbatzarrak aho batez ondorengo,

ERABAKITZEN DU

LEHENA.- 2013 urterako Alkizako Udaleko Aurrekontuaren espedientea osatzen duen dokumentazioari, hau da, memoria, lanpostu zerrenda, Plantila Organikoa, aurrekontua betearazteko arau eta bere eranskinei hasierako onspena ematea.



ALKIZAKO UDALA
(GIPUZKOA)

BIGARRENA.- Aurrekontuaren espedientearen hasierako onespeneren iragarkia Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzea eta hamabost egunetako epean dokumentua jendaurrean ipini edonork aztertu eta egoki dituen alegazioak zein iradokizunak burutu ditzan. Aipaturiko epean alegaziorik zein iradokizunik aurkeztuko ez balitz behin betirako onartuta geratuko da.

2013 ekitaldirako Udal Aurrekontu Orokorraren laburpena kapituloka ondorengoa da:

SARREREN EGOERA

1.- Zuzeneko zergak:	53.419,37
2.- Zeharkako zergak:	9.000,00
3.- Tasak eta bestelako sarrerak:	46.414,00
4.- Transferentzia arruntak:	264.566,00
5.- Ondarezko sarrerak:	4.310,00
6.- Inbertsio errealak inoreng.:	0,00
7.- Kapital transferentziak:	100.971,00
8.- Finantza aktiboak	0,00
9.- Finantza pasiboak	0,00

GUZTIRA: 478.680,37 €

GASTUEN EGOERA

1.- Pertsonal gastuak:	124.600,00
2.- Ondasun arrunten erosketak:	101.900,00
3.- Finantza Gastuak:	1.500,00
4.-Transferentzia arruntak:	88.020,51
6.- Inbertsio errealak:	142.580,00
7.-Kapital Trasferentziak	0,00
8.- Finantza aktiboak	0,00
9.- Finantza pasiboak	20.079,86

GUZTIRA: 478.680,37 €

HAMARGARREN PUNTUA **BESTE BATZUK**

Presazko arrazoiak direla eta gai zerrendan ez zeuden ondorengo



ALKIZAKO UDALA
(GIPUZKOA)

puntuak aztertzea erabaki dute bertaratuek aho batez.

10.1. ALKIZAKO HERRI OSTATUKO ZERBITZU PUBLIKOAREN USTIAKUNTZA, URTE BATEZ LUZATZEKO ONESPENA, HALA BADA

Ikusirik 2012ko ekainaren 26an egindako Udalbatzarrean Herri ostatu jatetxearen zerbitzu publikoaren kudeaketa I.V. eta D.L. (orain, Carolina Sanchez y otros C.B.) jaunei eman zitzaiola, baldintza ekonomiko administratibo pleguak aurreikusitako baldintzapean.

Ikusirik aipaturiko erabakiaren arabera Herriko ostatu jatetxearen zerbitzu publikoa kudeatzeko kontratu administratiboa sinatu zela, I.V. eta D.L. eta Alkizako Udalaren artean, 2012ko ekainaren 29an. Kontratuaren HIRUGARRENGO KLAUSULAN datorren modura, "emakidaren epea, baldintza administratibo partikularren pleguak 2. klausulan dion bezala, 6 hilabetekoa izango da, kontratua sinatzen den egunetik kontatzen hasita. Epe hori amaitu ondoren bi aldeen adostasunarekin beste urte betean luzatu daiteke kontratua, eta honen amaieran beste hiru urte eta erdirako gehienez".

Ikusirik aipaturiko lehen sei hilabeteak igaro direla, Alkizako Udala ados dagoelarik kontratua urte betez luzatzeko.

Gaia azterturik, Udalbatza honek, aho batez, ondorengoa

ERABAKITZEN DU:

LEHENA: I.V. eta D.L. orain Carolina Sanchez y otros C.B. Herriko ostatu jatetxearen zerbitzu publikoa kudeatzeko kontratua urte betez luzatzea. Baldintza administratibo partikularren pleguen 2. Klausua jarraituz.

BIGARRENA: Alkate-Lehendakaria ahalmentzea, kontratu luzapena sina dezan.

HIRUGARRENA: Erabaki honen berri Carolina Sanchez y Otros C.B. ematea.

10.2. ALKIZAKO PLAN OROKORRAREN IDAZKETAREKIN HASTEKO AURREKONTUEN ONESPENA, HALA BADA

Ikusirik gaur egun indarrean dauden Alkizako Arau Subsidiarloan oso zaharkituak gelditu direla, Alkizako Plan Orokorrearen idazketarekin hasi beharrean agertu dela Alkizako Udala.



ALKIZAKO UDALA
(GIPUZKOA)

Ikusirik, Alkizako Plan Orokorraren idazketarekin hasteko, hainbat aurrekontu eskatu direla eta hauek aztertu gainera.

Gaia azterturik, Udalbatza honek, aho batez, ondorengoa

ERABAKITZEN DU:

LEHENA: Soroa Arquitectos S.L.P. –ri Alkizako Plan Orokorraren diaknostikoa idazteko lanak esleitzea. Aurkezturiko aurrekontua 4.000,00 eurotako izanik.

BIGARRENA: EKOS Estudios Ambientales–eri Alkizako Plan Orokorraren idazketan haserako dokumentua eta formularioak egiteko lanak esleitzea. Aurkezturiko aurrekontua 6.030,00 eurotako izanik.

HIRUGARRENA: Andoni Unanue abokatuari Alkizako Plan Orokorraren idazketan diaknostikoa eta aurre dokumentuak egiteko dagokion aholkularitza juridikoa esleitzea. Aurkezturiko aurrekontua 6.000,00 eurotako izanik.

LAUGARRENA: Erain enpresari Alkizako Plan Orokorraren idazketan “levantamiento Topografico” egiteko dagokion lanak esleitzea. Aurkezturiko aurrekontua 1.600,00 eurotako izanik.

BOSTGARRENA: Erabaki hauen berri interesdunei ematea.

HAMAIKAGARREN PUNTUA **ERREGU, GALDERAK ETA MOZIOAK**

11.1. HUYCK WANGNER (PEROT)-eko LANGILEEN ALDEKO MOZIOA, ondorengoa izanik:

“HUYCK WANGNER (PEROT)-eko LANGILEEN ALDE

AURREKARIAK ETA ARRAZOIEN AZALPENA:

Zizurkilen kokatuta dagoen HUYCK WANGNER enpresa, lehen PEROT izena zuena, multinazional baten esku dago, zehazki XERIUM izeneko talde baten barruan dago. Multinazional honen jabeak estatubatuarra eta alemaniarra dira. Papergintzako fabrikentzat egiten du lan Zizurkilgo lantegiak, tela metalikoak eginez.

Urtarrilaren 21ean, enpresako kontseilariak eta hauen abokatuak Donostian bilera batera deitu gintuzten, hartu behar zituzten neurrien berri emateko.



ALKIZAKO UDALA
(GIPUZKOA)

Azalpen labur batzuk eman eta gero, multinazionalaren abokatuek esan ziguten hartutako erabakia: Zizurkileko lantokian dauden 81 langileetatik 75 kaleratuak izango zirela. Honek, argi eta garbi, lantegiaren itxiera suposatzen du.

Emandako arrazoiak, nagusiki, bi izan ziren: batetik, papergintzaren sektoreak eta multinazionalak jasaten ari diren krisia, eta bestetik Zizurkilgo lantegian dagoen makinaria zaharkituta dagoela, eta hau berritzeko gehiegizko inbertsioa egin beharko litzatekeela (19 eta 24 milioi euro artekoa, haien esanetan). Hori zela eta, hemen egiten den lana beste herrialde batzuetako lantegietara eraman nahi zutela esan ziguten: batez ere Italiara, baina baita ere Alemania eta Austriara.

Guk, lehenengo momentutik, haiek ezarritako aurrekariak ez ditugula onartzen, eta errealitatearen zati garrantzitsuenak aipatu ez izana leporatu genien. Izan ere, egun hartan esan ez zigutena zera da:

+ Zizurkilgo lantegiak, krisia krisi, urtero benefizioak eman dituela.

+ Produktibitate ratioak ikusita ere, enpresa taldeko lantegirik hoberena dela, hau da, langile bakoitzeko produkzio gehien egiten duena.

+ Hemen erabiltzen diren makinaren aldaketa aspaldi aurreikusia zegoen. Makinaria dagoeneko amortizatuta dago eta urtez urte, lantegiak emandako benefizioez gain, diru kopuru bat makinaria berritzeko gordetzen joan dira urte guzti hauetan.

+ Hemengo langileen soldatak ere ez dira arazo, hau inoiz ez da arazoa, nahiz eta beti aitzakiatzat erabili. Honen aurrean esan behar da produkzioa eraman nahi duten herrialdeetako lan-sariak askoz handiagoak direla.

Beraz, inongo zalantzarik gabe, eta dauzkagun datuen arabera, ondorio argi bat atera dezakegu:

Lantegi hau hustutzeko erabakia soilik estrategikoa izan da. Aurrera eraman nahi duten lekukotze edo berrantolaketa hau, oraindik diru gehiago irabazteko asmoz hartutako erabakia da, eta ez dute kontutan hartu nahi, 75 langile, 75 familia, kanean utzi nahi dituztela, lantegiak dirua ematen duen bitartean, produkzio maila hoberena duen bitartean eta orain egin beharreko inbertsioa aspaldi aurreikusita zegoen bitartean.



ALKIZAKO UDALA
(GIPUZKOA)

Multinazionalaren arduradunak, jakin badakite hartutako erabakia guztiz ulertezina eta mingarria dela, eta horren adibide, azken egunetan hartu dituzten neurriak eta jarrera ditugu:

+ Bilera egunaren aurreko astean, produkzio guztia enpresatik atera eta biltegi batzuetara eraman zuten.

+ Enpresako sarreran segurtasun pribatua jarri dute.

+ Enpresara sartzea debekatu digute.

+ Enpresarekin harremana duen guztia esternalizatu egin dute: Donostian zituzten abokatuena ordez Madrilgo abokatuak hartu dituzte, jarritako segurtasun pribatuko enpresa eta langileak kanpokoak dira, eta orain arte Zizurkilen egondako zuzendaritza ere kaleratua izan da. Hau da, bakarrik utzi nahi gaituzte, bitartekaririk gabe.

Erreforma Laborala egin zutenetik, langile klasearen aurkako eraso asko pairatu ditugu, eta kasu hau ez da salbuespena.

Madrilgo gobernuak inposatutako Erreforma Laboralak merkealdiak ekarri dituzte: lan-sarien, kaleratzeen eta lan-baldintzen merkealdiak!

PEROT-en kasuan, multinazionalak eskaintza honi erantzunez, bideragarria den lantegi bat ixtera etorri da, hemen egitea merkeago delako, beste leku batzuetan egitea baino.

ADMINISTRAZIO PUBLIKOEI ESKAKIZUNAK:

Arazoa eta konponbide beharra gizarteratu egingo dugu. Honetarako, beharrezkoa deritzogu, Instituzio Publikoekin hurrengo puntuak, bakoitza ahal den neurrian, konpartitu, babestu edota laguntzea:

1. Greba mugagabeen jarraituko dugu, eta honekin batera etorriko diren hainbat eta hainbat ekintza burutuko ditugu.

2. Beharrezkoa izango balitz, bide judiziala ere landuko dugu, hartutako erabakia guztiz neurrigabea delako.

3. Instituzio eta Administrazio Publikoen inplikazioa bilatuko dugu, arazo honi irtenbidea emateko modu asko daudelako, eta arazo honetan zer esanik badutelako.

4. Enpresarekin negoziaketak egiten jarraituko dugu, hartutako erabaki ulergaitza alda arazteko asmoz.”



ALKIZAKO UDALA
(GIPUZKOA)

Gaia aztertutik, Udalbatza honek, aho batez, aurkeztutako HUYCK WANGNER (PEROT)-eko langileen aldeko mozioa bere osotasunean onesten da.

11.2. TOLOSALDEA SAHARAREKIN G.K.E. "SAHARA BIZI" MOZIOA AURKEZTEN DA, ondorengoa izanik:

"TOLOSALDEA SAHARAREKIN G.K.E. SAHARA BIZI

Saharar Errepublika Arabiar Demokratikoa (SEAD)aldarrikatu zeneko 37. Urteurrenean, Tolosaldea Sahararekin elkarteak Larraulgo Udalbatzari ondoko mozioa aurkeztu dio hurrengo ohiko plenoan eztabaidatu eta onartu dezan.

Udalbatza honek:

1.-Mendebaldeko Saharako lurralde okupatuetan etengabe gertatzen diren manifestazio eskubidearen zanaketa, atxiloketak, torturak eta tratu txarrak, bortxaketak, desagerketak, deportazioak eta orokorrean giza eskubideen aurkako erasoak ez bairik gabeko salaketa eta gaitzespen bortitzena adierazten du.

2.-Mendebaldeko Sahararako Erreferenduanren Nazio Batuen Erakundearen Misioa (MINURSO)giza eskubideen arloko eskuduntzak izan dezan eskatzen du, Nazio Batuen erakundeak (NBE) munduan zehar hedaturik dauzkan misioen artean giza eskubideen arloa baztertzen duen misio bakarria izateari utzi diezaion.

3.-Mendebaldeko Saharako biztanleak, euren askatunez egokien deritzoten naziotasunari eta biztanle orori, Mendebaldeko Saharakoak barne, dagokigun mugimendu askatasuna errespetatzea eta Mendebaldeko Saharako biztanleak zatitzen duen 2600km luze den latsaren harresia eraistea eskatzen du.

4.-Espainiar estatuko diputaduen kongresuak ebatzitakoa behingoz betetzea eta gerran aurkitzen diren estatuei, Marokokoa kasu, armak saltzea debekatzen duen ebazpena betetzea, hau da, bere legedia betetzea eskatzen du.

5.-Mendebaldeko Saharako baliabide naturalen legeak kanpoko ustiatzeari uko egitea eta zehazki, Mendebaldeko Saharako urak bere baitan hartzen dituen artean, saharar arrantza bankuetan arrantza egiteko Europar batasuneko (EB) eta Marokoko estatuaren arteko ituna ez berritzea eskatzen du.



ALKIZAKO UDALA
(GIPUZKOA)

6.-Europar Batasuneko (EB)gainontzeko estatuekin batera, Saharar Errepublika Arabiar Demokratikoaren (SEAD) autodeterminaziorako eta independentziarako eskubidea aitortzea eta nazioarteko zuzenbidean jasotako jurisprudentzian oinarrituz, Mendebaldeko Saharako deskolonizazio prozesua amaitzea eskatzen du.

7.-Saharar Errepublika Arabiar Demokratikoa (SEAD) aldarrikatu zeneko urteurrenarekin bat etorriz, 2013ko otsailaren 27an arratsaldeko 19.30tan Tolosako triangulo enparantzan tolosaldea sahararekin elkarsteak, maroko saharatik at autodeterminazioa eta independentzia mendebaldeko sahararentzat lempaean, burutuko duen elkarretatzearekin bat egiten du.

8.-Saharar Errepublika Arabiar Demokratikoa (SEAD) aldarrikatu zeneko 37. Urteurrenarekin bat etorriz, 2013ko otsailaren 27an Mendebaldeko Saharako bandera herriko udaletxean zintzilikatzea adosten du.”

Gaia azterturik, Udalbatza honek, aho batez, Tolosaldea Sahararekin G.K.E. –ek aurkezturiko mozioa bere osotasunean onesten da.

Eta aztertu beharreko beste gairik ez dagoenez, Lehendakari Jaunak bilkura 22.20 etan amaitutzat eman du eta akta hau jaso da, etorri diren guztiek izenpetu dutena eta Idazkari naizen honek, aztertu denaren benetako adierazgarria dela uste duena.